



EAEKO DANTZA-PROFESIONALEI BURUZKO INKESTA



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



EAEKO DANTZA-PROFESIONALEI BURUZKO INKESTA EMAITZEN TXOSTENA

Aurkezpena 3

1. Emaizten azterketa 4

1.1 DEMOGRAFIA-DATUAK 4

1.2 PRESTAKUNTZA 6

MAILA ETA TITULAZIO MOTAK 6

PRESTAKUNTZA-ESKAINTZAREN BALORAZIOA 7

1.3 IBILBIDE PROFESIONALA 8

ELKARTE PROFESIONALEKIKO LOTURA 8

PRESTAKUNTZATIK LANERAKO TRANTSIZIORAKO BIDEAK 10

IBILBIDE PROFESIONALEAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK 11

1.4 LAN-JARDUERARI BURUZKO DATUAK 12

LANAREN FORMA JURIDIKOAK 12

LANA ETA KOTIZAZIOA 14

LAN-EREMUAK 15

LANTOKIA 16

1.5 EMAITZA EKONOMIKOAK 17

DIRU-SARREREN OSAERA 17

DANTZAREN ARLOTIK ESKURATUTAKO DIRU-SARREREN MAILA 18

JATORRI PUBLIKOKO DIRU-SARRERAK 20

COVID-19AREN ERAGINA 21

1.6 ZERBITZU SEKTORIALEN BALORAZIOA ETA LEHENESPENA 23

ZERBITZU PROFESIONALAK BALIATZEA 23

ELKARTEEK ESKAINITAKO ZERBITZUEKIKO LEHENTASUNAK 25

2. Emaizten laburpena 27

Eranskina 32

INKESTAREN EDUKIAK 32



AURKEZPENA

ADDE, Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarteak, dantza gizartean, hezkuntzan, lan-munduan, kulturaren eta mundu artistikoan gara dadila sustatzea du helburu, esperientziatik, konpromisotik eta bere profesionalen baterako gogoetatik abiatuta. Elkarteak sektorearen barne-kohesioa lortzeko eta profesionalen lan-baldintzak hobetzeko egiten du lan, dantzaren sektoreari kulturaren, prestakuntzaren eta lan-munduaren arloan eragiten dioten politika publikoetan esku hartuz.

Xede horrekin, eta Kulturaren Euskal Behatokiaren laguntza teknikoarekin, ADDEk EAEko dantza-sektore profesionalari buruzko ikerketa bat egin du, ahal bezain fidagarria eta kontrastatua izango den erradiografia bat eskuratze aldera.

Ikerketa horrek, beste ezer baino lehen, sektorearen eta sektoreko profesionalen errealitatea bertatik bertara eta datuen bidez ezagutzeko balio behar du. Baina ez hori bakarrik, lortzen den informazioak sektorea indartzen lagunduko duten estrategiak eta zerbitzuak garatzeko oinarri izan behar du.

Horretarako, ikerketa honen metodologiari dagokionez, galdetegi ireki bat helarazi zaio sektoreari, estatistikaren arabera azter daitezkeen datuak eskuratze aldera.

Galdetegiak sei multzo ditu, eta 6 multzo horien arabera dago txosten hau antolatuta:

1. Demografia-datuak
2. Prestakuntza
3. Ibilbide profesionala
4. Lan-jarduerari buruzko datuak
5. Emaidza ekonomikoak
6. Zerbitzu sektorialen balorazioa eta lehenespena

Landa-lana 2022ko maiatzaren 11tik ekainaren 13ra bitartean egin zen. Zehazki, *online* erantzuteko galdetegi autoadministratu bat prestatu zen, eta ADDEk modu irekian zabaldu zuen. Unibertsoa sektoreko profesionalen multzoak osatzen du, eta ez bakarrik ADDEko bazkideek. Beraz, autohautatutako lagina da. Guztira, 82 dantza-profesionalek hartu dute parte inkestan¹.

1. Dena den, emaitzak interpretatzeko eta ondorioak orokortzeko, zuhurtziaz jokatu behar da arestian aipatutako ezaugarri metodologikoak aintzat hartuta.




1. EMAITZEN AZTERKETA

1.1 DEMOGRAFIA-DATUAK


Demografia-datuen arabera, **Bizkaian** eta **Gipuzkoan** jaiotzen dira dantza-profesional gehienak (1. grafikoa). Halaber, badaude Espainiako estatuko beste toki batzuetan eta atzerrian jaiotako pertsonen ehuneko txiki batzuk ere. Alabaina, txikiak izan arren, garrantzitsuak dira, fenomeno erreal baten berri ematen dutelako: estatu barruko eta nazioarteko mugikortasunaren berri, hain zuzen.

Datuen gurutzaketak agerian uzten du EAEn jaiotako hamar pertsonatik bat bere ibilbidea Espainiako estatuko beste toki batean egiten ari dela (eta % 2,8 atzerrian), eta 2. grafikoa erakusten du EAEn dauden datza-profesionalen % 4,9 atzerrian jaiotakoak direla.


1. grafikoa. Jaioterrria (EAE bakarrik) (%)



2. grafikoa. Jaioterrria (%)




3. grafikoa. Egungo bizilekua (%)





4. grafikoa. Adin tartekak (%)




Adinari erreparatuta (4. grafikoa), gutxien ordezkaturik dauden kolektiboak gazteenak (identifikatutako pertsonarik gazteenak 23 urte ditu) eta nagusienak dira (% 17,1 eta % 15,9, hurrenez hurren). Aldiz, **tarteko adinetan** daude pertsona gehien, 31 eta 50 urte bitarteko multzoan (% 66).

Gazteei eta nagusiei dagokienez, honako hauek hartu behar dira aintzat:

- 1) Prestakuntza-aldiak eta profesionalizatzeko zailtasunak gazteen presentzia handiagoa eragotz dezake.
- 2) Adina (altuena) faktore adierazgarria da; izan ere, zerikusia du pertsonen egoera fisikoarekin eta horrek lanbidean jardutean izan dezakeen inpaktuarekin.

5. grafikoa. Generoa (%)



Azkenik, ikusten da **emakumeek** hartzen dutela sektorearen zati handiena (5. grafikoa). Gizonen presentzia txikiagoa da, baina esanguratsua, eta horrez gain, ez-binario gisa identifikatzen diren pertsonen ehuneko txiki bat ere badago².

2. Emaitzak interpretatzeko, zuhurtziaz jokatu behar da; izan ere, beren burua ez-binariotzat duten pertsonen lagina oso txikia da, eta, ondorioz, zaila da ondorioak ateratzea.




1.2 PRESTAKUNTZA


Maila eta titulazio motak

Prestakuntzaren arloan, deigarria da, lehenik eta behin, **titulazio ofizial bat izateak edo ez izateak ia berdinak diren bi multzotan banatzen duela lagina** (6. grafikoa), nahiz eta titulazio ofizialik ez duten pertsonen multzoa pixka bat handiagoa den. Titulazio ofizialak dituzten pertsonen artean, ohikoena da **goi-mailakoak** izatea (% 20,7). Atzetik datoz titulazio-maila gorena (masterra, % 12,2) eta titulazio profesionala (% 11).

6. grafikoa. Titulazio ofiziala izatea ala ez izatea (%)



7. grafikoa. Titulazio motak (%)




Aintzat hartu behar da gazteen % 71,4k daukatela titulazio ofizialen bat (8. grafikoa). Dena den, gazteak ez dira prestakuntza-maila handiena dutenak, eta badirudi adina dela horretarako arrazoia (1. taula). Adinak duen eraginaz gain, badirudi belaunaldien arteko beste eragin bat ere badagoela: gaur


egun, prestakuntza ofiziala lehenesten da, eta horregatik **garrantzi handiagoa ematen zaie titulazio ofizialei**.

Bestalde, argi ikusten da gizonek emakumeek eta pertsona ez-binarioek baino prestakuntza ofizial gutxiago dutela (9. grafikoa).

8. grafikoa. Titulazio ofiziala edukitzea, adin-tartearen arabera (%)



9. grafikoa. Titulazio ofiziala edukitzea, generoaren arabera (%)



1. taula Titulu gorena, adin-tartearen arabera (prestakuntza ofiziala duten pertsonen artean) (%)

	Erantzunik ez	Oinarritzkoa	Profesionala	Goi-mailakoa	Masterra
20 eta 30 urte bitartean	50,0	100,0	55,6	11,7	10,0
31 eta 40 urte bitartean	0,0	0,0	22,2	35,3	40,0
41 eta 50 urte bitartean	50,0	0,0	22,2	17,7	30,0
51 eta 65 urte bitartean	0,0	0,0	0,00	29,4	20,0
Erantzunik ez	0,0	0,0	0,00	0,0	5,9
	100	100	100	100	100

Dantzaren arloko titulazio ofizialik ez duten pertsonen artean, hiru kasu hauek bereizi behar dira:

- Dantza-titulazio ez-ofizialak dituztenak.
- Dantza-ikasketarik ez dutenak.
- Dantzarekin erlazionatutako arloren bateko ikasketak izanagatik ere, dantza-ikasketarik ez dutenak (arte eszenikoak, zirkua...)

Zentzu horretan, **ikasketa ofizialik ez dutenen erdiek ez dute dantzarekin erlazionatutako ikasketarik** (% 25,6); % 11k dantzarekin erlazionatutako ikasketak dituzte, nahiz eta dantza-ikasketarik ez izan, eta % 13,4k berezko tituluak edo titulu pribatuak eskuratu dituzte dantzaren arloan.

Azken horien artean, honako hauek aipatu dituzte inkestatuek: Dantza moderno eta garaikideko gradua, Madrilgo Danza 180º eskolan; Dantza Mugimendu Terapia masterra, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan; Hip Hop School eta European Fitness School eskolak; Performing Contemporary Practices ikastaroa, Leeds Beckett Universityn; eta profesionalen ikastaroak, adibidez, Olga Rorizena (FOR Dance Theater) eta Pablo Ibarluezarena (CEC; Cuerpo, Espacio, Creación).


Esanguratsuak diren beste prestakuntza batzuen artean, gai espezifikoak jorratzen dituzten ikastaroak (dantza garaikidea, dantza bertikala, pilatesa, hip-hop...) eta prestakuntza orokorrak (arte dramatikoa orokorra, publikoak, kulturaren kudeaketa, pedagogia, hezkuntza...) dira azpimarratzekoak.

Prestakuntza-eskaintzaren balorazioa


Azkenik, EAEko prestakuntza-eskaintzaren balorazioa nabarmendu behar da. Batez beste, **inkestatuek tarteko puntuazioarekin baloratu dute prestakuntza-eskaintza, baina balorazio negatiborako joerarekin** (10. grafikoa. Batez besteko puntuazioa 2,4 da, 1etik 5erako eskalan). EAEko prestakuntza hobekien baloratzen duten bi kolektiboak titulazio gehien daukatenak dira; hau da, gazteenak eta nagusienak (11. grafikoa). Generoaren arabera, gizonek puntuazio baxuagoa eman

diote prestakuntza-eskaintzari, baina gogorarazi behar da gizonak direla prestakuntza ofizial gutxien daukatenak (12. grafikoa).


10. grafikoa. EAEko prestakuntza-eskaintzaren balorazioa 1etik (eskasa) 5erako (osoa) eskalan (%)



11. grafikoa. Balorazioaren batezbestekoa, adin-tarteen arabera, 1etik (eskasa) 5erako (osoa) eskalan



12. grafikoa. Balorazioaren batezbestekoa, generoaren eta adinaren arabera, 1etik (eskasa) 5erako (osoa) eskalan



EAEko dantzaren arloan dagoen prestakuntza-eskaintzaren egoerari buruzko iruzkinetan, honako ideia hauek atera dira:

- Positiboki baloratzen da Dantzerti, baina ez da nahikoa.
- Beharra dago prestakuntzetan dantza-estilo gehiago sartzeko: prestakuntza ofiziala eskaini behar da bai dantza klasikoaren arloan (inkestatuen arabera, dantza klasikoak da une honetan hobekien kokatuta dagoena), bai dantza garaikidearen eta dantza tradizionalaren arloan.




- Ikasketa ofizialeko tituluak lortzea ahalbidetzen duten espezializazio gehiago eskaini behar dira.
- Prestakuntza-eskaintzak lurralde osora zabaltzea behar dira, bereziki oinarrizko maila eta maila profesionala.
- Goi-mailako irakaskuntzetan eta etengabeko prestakuntzan sakondu behar da, ibilbide profesionalen etengabeko garapena ahalbidetze aldera.
- Profesionalizatorako bideak eta bide akademikoagoak instituzionalizatu behar dira dantza-irakaskuntzen arloan.
- Dantzertiri nazioarteko izaera emateko interesa dago.
- Interpreteteez gain, sortzaile eszenikoak ere presta daitezke.
- Eskola pribatuak, sarrera-proba ofizialen bidez, heziketa/ prestakuntza jasotzeko toki bihurtu daitezke.
- Akademia pribatuek ematen duten prestakuntza oinarrizko ikasketa gisa aitortu daitezke.
- Dauden zentroekin prestakuntza-sare bat osatzeko potentziala dago; zentro pribatuak ugariagoak dira zentro publikoak baino.
- Dantzarien entrenamendurako egoitza bat falta da.

1.3 IBILBIDE PROFESIONALA

Elkarte profesionalekiko lotura

Inkestatuen % 79,3k harremana dute elkarte profesionalekin (13. grafikoa). Inkestatuen % 51,2 elkarte bateko bazkide dira eta gainerako % 28,1a bat baino gehiagokoa (orokorrean, bi elkartekoa). Horrenbestez, 10 pertsonatik 8 elkarte batean bazkide-tuta daudenez, **esan daitezke mota horretako asoziazionismo profesionala erabat zabaldua dagoela sektorean.**


13. grafikoa. Pertsonak zenbat elkarte profesionaletan bazkide-tuta dauden (%)




Bazkide-tutan dauden aldeak adinaren arabera dira bereziki nabarmenak: **gazteenak dira elkarte profesionaletara gutxien batzen direnak** (erdiak baino gehiago ez dira inongo elkartetako bazkide, zehazki, % 57,1). Generoari erreparatuta, hauteman da **gizonak gehiago bazkide-tutan direla** emakumeak eta pertsona ez-binarioak baino.



14. grafikoa. Bazkideak, adin-tartearen arabera (%)




15. grafikoa. Bazkideak, generoaren arabera (%)



Bazkide gehien dituen elkarteak, argi eta garbi, **ADDE** da (16. grafikoa). Emrendo Danzak, Artekalek, Gipuzkoako Dantza Profesionalen Elkarteak eta Eskenak % 12,3; % 7,7; % 4,6 eta % 1,5 hartzen dituzte, hurrenez hurren.

16. grafikoa. Elkarteak, bazkideen arabera (%)



“Beste batzuk” kategoria gehitu da tamaina esanguratsua duelako; izan ere, erantzunen % 30,8 hartzen ditu. Multzo horren barruan nabarmentzekoak dira, behin baino gehiagotan aipatu direlako, Euskal Aktoreen Batasuna/ Unión de Actores Vascos sindikatua; dantza tradizionalaren sektoreari lotutako Bizkaiko Dantzarien Biltzarra eta Euskal Dantzarien Biltzarra elkarteak; Karraskan eta Euskal Zirku Elkarteak (EZE). Horrez gain, beste eskualde batzuetako elkarte profesionalak ere aipatu dira, besteak beste, Danimarkakoak, Alemaniakoak, Madrilgoak, Kataluniakoak eta Galiziakoak. Horrek erakusten du elkarte profesioletara bazkideetza **ingurune profesional jakinetan integratzeko estrategia dela**.

Orokorrean, **aniztasun handia dago**, eta hori dantzarekin lotura duten eremuen heterogeneotasunaren eta elkarteek lanerako eskaintzen duten bidearen erakusle da. Adibidez, elkarte hauek aipatu dira: Lanartea, Musikari, Oinherri, ASSITEJ, Orff Spain, Euskal Herriko Kontakt Inprobizazio Elkarteak, Asociación Método Trager de España, Asociación D+I Danza e Investigación eta Nafarroako Kultur Kudeaketaren Profesionalen Elkarteak.

Dena den, eta jakinda bazkide direnen % 80k bazkideetza gomendatzen dutela, badirudi % 15,4k ez daukatela argi gomendatuko lukeen ala ez (Ez daki/Ez du erantzuten aukera hautatu dute) eta ehuneko txiki batek, % 4,6k, ez du gomendatzen (2. taula).

2. taula Bazkide direnek eta ez direnek elkarteren batera bazkideetza gomendatzen duten ala ez (%)

	Bazkideak	Bazkide ez direnak
Bai, gomendatzen du	80,0	52,9
Ez daki/Ez du erantzuten	15,4	47,1
Ez du gomendatzen	4,6	0,0
	100	100


Prestakuntzatik lanerako trantsiziorako bideak

Inkestatuen % 13,4k bakarrik adierazi du laneko egonkortasunerako trantsizioa egiteko bidea arina izan dela dantza-munduan, eta beraz, ikuspegi horretatik arrakastatsua izan dela (17. grafikoa).

Egoerarik ohikoena nolabaiteko egonkortasuna lortzea da, zailtasunekin bada ere (inkestatuen % 36,6k egin dute arrakasta erlatiboko bidea). Hala ere, **inkestatuen % 44k adierazi dute ezegonkortasun-egoeraren bat bizi dutela**, dantza beste sektore batzuetako lanekin uztartu behar duelako (% 21,95) edo oraindik ere lana eta prestakuntza uztartzen dituelako, dantza ez diren beste sektore batzuetako lanarekin betiere (% 21,95).

Gauzak horrela, sektorearen zati handi baten egoera profesionala prekariora da.

17. grafikoa. Prestakuntzatik lanerako trantsiziorako bide motak (%)



Datuetan ikus daiteke adinaren arabera (3. taula) nolabaiteko patroia dagoela, baina, hala ere, heterogeneotasun handia dago adin-tarte guztietan:

- Lehenik, azpimarratu behar da **zaugarritasun handieneko bidea oso zeharkakoa dela** eta adin-tarte guztietan aurki daitekeela.
- Bigarrenik, 51 urtetik gorako **pertsona nagusiak dira bide arrakastatsuenak egin dituztenak**. Gazteenen zati handi batek arrakasta erlatiboko bidean kokatzen du beren burua. Ildo horretan, gogorarazi behar da titulazio ofizial gehien dituzten bi kolektiboak direla arestian aipatutakoak (3. taula).
- Aldiz, **tarteko adinak dituzten pertsonak** –aldi berean, titulazio ofizial gutxien dutenak dira– egoera ezegonkorretan daude batez ere, eta dantza-arloan duten lana beste sektore batzuetako lanarekin uztartu behar dute.

3. taula Prestakuntzatik lanerako trantsiziorako bideak, adinaren arabera (%)

	Hutsik	20 eta 30 urte bitartean	31 eta 40 urte bitartean	41 eta 50 urte bitartean	51 eta 65 urte bitartean
Oso ahula, prestakuntza eta sektoreko lana txandakatuta eta beste sektore batzuetako lanekin eta/edo prestakuntzarekin uztartuta.	0,0	21,4	19,2	25,0	23,1
Oraindik ere ezegonkorra da, eta dantza-munduko lana ezinbestean uztartu behar dut beste lan batzuekin.	0,0	21,4	61,5	35,7	7,7
Zailtasunak ditut, nahiz eta lortu dudan dantza-munduan nolabaiteko lan-egonkortasuna lortzea.	0,0	42,9	19,2	17,9	15,4
Arina, dantza-munduan prestakuntzatik lan-egonkortasuna lortu arteko trantsizioa naturala izan da.	100,0	14,3	0,0	10,7	38,5
Beste batzuk:	0,0	0,0	0,0	10,7	15,4
	100	100	100	100	100

Generoari erreparatuta (4. taula), ikus daiteke **gizonen bideak apur bat arinagoak izan direla** emakumeenak eta pertsona ez-binarioenak baino. Izan ere, nahiz eta gizonen eta emakumeen % 40 nolabaiteko egonkortasun-egoeran dauden, arrakasta handieneko bidean gizonen % 24 kokatzen dira, baina soilik emakumeen % 7,8 (gutziz kontrakoa gertatzen da zaugarritasun handieneko egoeran). Lagina oso txikia den arren, pertsona ez-binarioen erdiak daude zaugarritasun handieneko egoera horretan.

4. taula Prestakuntzatik lanerako trantsizio-bideak, generoaren arabera (%)

	Gizona	Emakumea	Ez-binarioa
Oso ahula, prestakuntza eta sektoreko lana txandakatuta eta beste sektore batzuetako lanekin eta/edo prestakuntzarekin uztartuta.	8,0	25,5	50,0
Oraindik ere ezegonkorra da, eta dantza-munduko lana ezinbestean uztartu behar dut beste lan batzuekin.	20,0	23,5	16,7
Zailtasunak ditut, nahiz eta lortu dudana dantza-munduan nolabaiteko lan-egonkortasuna lortzea.	40,0	39,2	0,0
Arina, dantza-munduan prestakuntzatik lan-egonkortasuna lortu arteko trantsizioa naturala izan da.	24,0	7,8	16,7
Beste batzuk:	8,0	3,9	16,7
	100	100	100

Inkestatuak elkarteren batera bazkide-tuta dauden ala ez aintzat hartuta (5. taula), **bazkide-tuta ez daudenak pixka bat hobeto daude**, proportzionalki bazkide-tutako pertsona gehiago dagoelako biderik prekarioenean; zehazki, % 24,6 eta 11,76 %, hurrenez hurren. Gainerako kategorietan, antzekoagoak dira proportzioak.

5. taula Prestakuntzatik lanerako trantsiziorako bideak, bazkide-tuta dauden ala ez (%)

	Bazkide: ez	Bazkide: bai
Oso ahula, prestakuntza eta sektoreko lana txandakatuta eta beste sektore batzuetako lanekin eta/edo prestakuntzarekin uztartuta.	11,8	24,6
Oraindik ere ezegonkorra da, eta dantza-munduko lana ezinbestean uztartu behar dut beste lan batzuekin.	23,5	21,5
Zailtasunak ditut, nahiz eta lortu dudana dantza-munduan nolabaiteko lan-egonkortasuna lortzea.	41,2	35,4
Arina, dantza-munduan prestakuntzatik lan-egonkortasuna lortu arteko trantsizioa naturala izan da.	11,7	13,9
Beste batzuk:	11,7	4,6
	100	100

Ibilbide profesionalen eragiten duten faktoreak


Ibilbide profesionali buruzko datuak bi modutara irakur daitezke: batetik, ibilbideetan eragina duten elementuak "eduki" ez dituzten edo eduki ezin izan dituzten pertsonen kopuruari erreparatuta, eta bestetik, elementu horiek eduki dituztenek elementu horiez egiten duten balorazioa aintzat hartuta.

Oro har, **elementu gehienak iruditzen zaizkie esanguratsuak** beren ibilbide profesionalen garapenean (3 puntu baino gehiago eman dizkiete 1etik, ez da batere esanguratsua, 5erako, oso esanguratsua da, eskalan). Katalogo eta zirkuituetan parte hartzeko hautatua izatea eta sari eta errekonozimenduak jasotzea dira tarteko puntuazio horretatik behera geratzen diren elementu bakarrak (18. grafikoa).

Bi irakurketa posibleak eginda (elementu horiek zein neurritan izan diren esanguratsuak baloratzea eta elementu horiek "eduki" ahal izan dituzten pertsonen kopurua), emaitza hauek atera dira:

- **Inkestatu gehienek esanguratsutzat jotzen dituzten elementuek** barne hartzen dituzte **prestakuntza** espezifiko eta sorkuntza koreografikorako **egonaldiak**.
- Kontrako muturrean, **gutxi zabaldua dauden arren esanguratsuenak diren** elementuen artean aurki daitezke **atzerrian egindako egonaldiak** eta etengabeko **prestakuntzarako** dirulaguntzak.
- Tartean kokatzen dira sorkuntzarako laguntzak, norberaren konpainiak sortzea eta produkziarako eta/edo birak/erakusketak egiteko laguntzak.

18. grafikoa. Elementuen balorazioa (eta elementu hori baloratu ezin dutenen pertsonen %a, elementu hori ezin izan dutelako "eduki").




1.4 LAN-JARDUERARI BURUZKO DATUAK


Lanaren forma juridikoak

Beste sektore profesional batzuetan ez bezala, baina orokorrean jarduera artistiko profesionalean ohikoa den moduan, **norberaren konturako lanak hartzen duen garrantzia** azpimarratu behar da. Inkestatuen % 40,2 norberaren kontura ari dira lanean eta % 14,6k uztartu egiten dituzte besteren konturako lana eta norberaren konturakoa (19. grafikoa). Gauzak horrela, profesionalen erdiek baino gehiagok egiten dituzte norberaren konturako lanak.


19. grafikoa. Lan egiteko modu nagusia (%)



20. grafikoa. Norberaren konturako lan motak (%)



21. grafikoa. Besteren konturako enplegatzaile motak (%)



Zentzu horretan, hauteman da **pertsonen ehuneko txiki batek balizko ezkutuko lan-harremanak izan ditzakeela**, autonomoak izanagatik ere, agente bakarrarentzat egiten dutelako lan.


Beste sektore batzuetan erabat ezohikoa den baina zuzeneko arteen sektore artistikoetan arrunta den beste lan-egoera bat **elkarke edo kooperatibetan**

besteren konturako lana egitea da. Hala eta guztiz ere, oso ohikoa da neurri berean lan egitea hainbat agenterentzat (enpresak, elkarkeak eta sektore publikoa).


Erantzunetan besteren konturako lana eta norberaren konturako lana uztartzen dela eta hainbat agenterentzako besteren konturako lana egiten dela agertzeak erakusten du sektorean dauden egoerak oso heterogeneoak direla, eta batzuetan norberaren egoera ere halakoxea izan daitekeela.

Besteren konturako lana egiten dutenen proportzioa apur bat handiagoa da 20 urtetik 30 urtera bitarteko gazteenen adin-tartean, inkestatuen % 78,6 baitaude egoera horretan. Horrek iradoki dezake **ohiko izan daitekeela norberaren proiektuak ibilbide profesionalean aurrera egin ahala garatzea** (inkestatuen % 18-25en kasua litzateke hori, aintzat hartuta besteren konturako lanak adin-tarte horretan eta gainontzekoetan duen pisuaren arteko aldea).

22. grafikoa. Lan egiteko modua (norberaren kontura edo besteren kontura), adin-tartearen arabera (%)



23. grafikoa. Lan egiteko modua (norberaren kontura edo besteren kontura), generoaren arabera (%)



Oharra: Kontuan hartu behar da Besteren kontura kategorian sartzen direla aldi berean Besteren kontura eta Norberaren kontura lan egiten duten inkestatuak.



Generoari erreparatuta, alderik handiena 14 puntukoa da. Oro har, emakumeak dira, gehiengo izan arren, besteren kontura gutxien lan egiten dutenak (% 54,9, hain zuzen, pertsona ez-binarioen % 67ren eta gizonen % 68ren aldean).

Azkenik (6. taula), aipatu behar da berdintsu bazkidezen direla norberaren kontura eta besteren kontura lan egiten dutenak, nahiz eta besteren konturako langileen artean apur bat gehiago diren bazkidezuta ez daudenak.


6. taula Lan egiteko modua (norberaren kontura edo besteren kontura), bazkidezuta dauden ala ez (%)

	Bazkide ez direnak	Bazkideak
Norberaren kontura	35,29	41,54
Besteren kontura	64,71	58,46
	100	100


Azterketa nahiko sakona eginda hauteman da, orokorrean, norberaren kontura lan egiten dutenek **dantzarekin lotutako epigrafe baten pean egiten dutela lan**. Inkestatuen % 4,4k bakarrik adierazi dute ez dakitela zein epigraferen pean egiten duten lan, eta beste epigrafe batean lan egiten dutenen ehunekoa % 13,3koa da. Datuak ikusita, badirudi profesional askok **sektoretik kanpoko beste lan batzuekin uztartzen dutela dantza**, bizirauteko. Hurrengo atalean sakonduko da horretan.

Besteren kontura lan egiten dutenei erreparatuta, **nabarmen azpimarratzekoa da lau pertsonatik hiru kontraturik gabe aritu izan direla lanean inoiz**. Are gehiago, lautik batek adierazi du nahiko edo oso sarritan egiten duela lan kontraturik gabe. Horrek guztiak agerian uzten du sektoreko profesionalak egoera prekarioan daudela eta balizko zaurgarritasun-egoeran ere egon daitezkeela. Azkenik, besteren konturako lanari helduta, bi gauza nabarmendu behar dira: inkestatuen laurdenak, gutxienez, ez daude artisten araubidean lanean eta % 16k ez dakite zein araubidetan egiten duten lan.


24. grafikoa. Norberaren konturako lana, dantzarekin zerikusia duen epigrafearekin (%)



25. grafikoa. Hirugarrenen konturako lana, kontraturik gabe (%)




26. grafikoa. Hirugarrenen konturako lana, kontratuarekin (%)



Dantzarien kasua aztertuta, ikusi da **askotan ez dagoela prestazioaren aurreko kontraturik** (aurreko entseguetatik). Herenak baino gehiagok adierazi du ez duela horrelako kontraturik izaten inoiz edo ia inoiz, eta inkestatuen zati horri mota horretako kontratua noizean behin izaten dutela adierazi dutenen ehunekoa gehitzen bazaio, inkestatuen bi herenera iristen da guztira. Herenak bakarrik adierazi du nahiko edo oso sarritan daukala prestazioaren aurretiko kontratua.

27. grafikoa. Zenbatetan egiten den lan prestazioaren aurretiko kontraturik gabe (dantzariak bakarrik) (%)






Lana eta kotizazioa

Sektore artistikoko lanaren egiturazko ezaugarrietako bat da **lanaren aldizkakotasuna**. Dantzaren kasuan, **2021ean lan egindako hilabete kopuruaren batezbestekoa 8,4 izan zen**. Batezbesteko hori apur bat handiagoa da norberaren kontura lan egiten dutenen kasuan, baina aldea txikia da norberaren kontura lan egiten ez dutenekiko: 8,73 eta 8,12, hurrenez hurren.


Gainera, sorkuntza-, produkzio- eta erakusketa-prozesu artistikoekin lotutako arazo horri beste hau ere gehitu behar zaio: **lan egindako eta kotizatutako hilabeteak ez datoz bat** (28. grafikoa). Ildo horretan, inkestatuen herenek adierazi dute desdoitze nahiko handia edo handia dagoela lan egindako eta kotizatutako hilabeteen artean; aldiz, % 20,7k adierazi dute alde hori txikia dela, % 22k deuseza dela eta % 18,3k fenomeno hori ez datorrela bat beren egoera pertsonalarekin (ulertu behar da hori erantzun dutenei arestian aipatutako desdoikuntzak ezin diela eragin beren lan-egoera dela eta).

28. grafikoa. Inkestatuek lan egindako eta kotizatutako hilabeteen artean dagoen desdoikuntzari buruz egiten duten balorazioa (%)



Adinean zentratzen bagara (29. grafikoa), bereziki nabarmena da **gazteak direla fenomeno hori gehien pairatzen dutenak**; izan ere, desdoikuntzaren inpaktua oso handia dela adierazi dute adin-tarte horretako inkestatuen % 40k. Aldiz, beste adin-tarteetan % 12k eta % 20k baino ez dute hori adierazi. Nagusiagoak direnen adin-tarteetan, ordea, handiagoa da desdoikuntza hori pairatzen ez dutenen proportzioa. Hala ere, 41 urtetik aurrerakoien taldeetan desdoikuntzaren inpaktua "nahiko" handia dela adierazi dutenen proportzioa oso esanguratsua da.


29. grafikoa. Inkestatuek lan egindako eta kotizatutako hilabeteen artean dagoen desdoikuntzari buruz egiten duten balorazioa, adin-tarteen arabera (%)



Generoari erreparatuta (30. grafikoa), **gizonen egoera apur bat hobea da**, nahiz eta gizonen eta emakumeen proportzioa berbera izan desdoikuntza "nahiko handia" eta "handia" dela erantzun dutenen kategorietan (% 45 inguru).




30. grafikoa. Inkestatuek lan egindako eta kotizatutako hilabeteen artean dagoen desdoikuntzari buruz egiten duten balorazioa, generoaren arabera (%)



Azkenik, elkarte profesionalen batera bazkidetuta daudenen eta ez daudenen arteko aldeari erreparatuta (31. grafikoa), esan daiteke **bazkidetuta ez daudenak egoera okerragoan daudela**: % 66,7k adierazi dute desdoikuntza "nahiko handia" edo "handia" ikusten duela. Aldiz, bazkidetutakoen artean ehuneko hori % 38koa da.

31. grafikoa. Inkestatuek lan egindako eta kotizatutako hilabeteen artean dagoen desdoikuntzari buruz, egiten duten balorazioa bazkidetuta dauden ala ez (%)



Oro har, eta nahiz eta aldeak handiak diren, lan egindako eta kotizatutako hilabeteen arteko desdoikuntza oso zeharkakoa da sektore osoan.


Lan-eremuak

Egiten diren jarduera motei dagokienez (32. grafikoa), honako hauek nabarmentzen dira:

1. Irakaskuntza
2. Ikerketa-sorkuntza
3. Administrazio-kudeaketa (azken hau garrantzi gutxikotzat jo dute askok, hirugarrenen kontura lan egiten dutelako, ziurrenik).

Arestian aipatutako jardueren ostean, produkzioa/erakusketa/banaketa dira denbora gehien eskatzen duten jarduerak. **Azkenik, prestakuntzetara eta bitartekaritza/audientzietara joatea dago** (askorentzat azken hori ez da pertsonak egiten duten zerbait ere)..

32. grafikoa. Lanarekin lotutako jarduerari eskaini beharreko denboraren balorazioa, 1etik (gutxi) 5erako (asko) eskalan (eta jarduera hori egiten ez duten pertsonen %a)






Bada, **agerikoa da irakaskuntza dela jarduera nagusia** eta denbora gehiago eskaintzen zaiola sorkuntzaren, produkzioaren eta erakusketaren jarduera artistikoari eta beren kontura lan egiten dutenek egin behar duten kudeaketari baino.

Inkestatu gehienen ustez irakaskuntza-jarduerari behar besteko denbora eskaintzen badiote ere (% 51,3k erantzun dute "behar beste"), azpimarratzekoa da % 21,3ren ustez nahiko luketen denbora baino gehiago eskaintzen diotela (33. grafikoa). Beharbada, hori horrela izango da irakaskuntza garrantzitsua dela uste duten arren, **normalean batez ere arrazoi instrumentallengatik aritu behar izaten dutelako irakaskuntzan**, bizirauteko eta diru-sarrerak eskuratzeko, eta hori, batzuetan, sorkuntza artistikoari eskaini nahi zaion denboraren kontra joan daiteke.

33. grafikoa. Lanarekin lotutako jarduerari eskaini beharreko denboraren balorazioa, espektatiben/nahien arabera (%)



Zentzu horretan, nabarmenezkoa da inkestatuen proportzio oso esanguratsu batek (% 58,8) esan duela denbora **gehiago eskaini nahiko liokeela ikerketari-sorkuntzari**.


Aldiz, prestakuntzak, ikerketa/sorkuntzak eta administrazio-kudeaketak hartzen dituzte nahi baino denbora gutxiago eskaintzen diotela esan duten pertsonen ehunekorik handienak. 32. grafikoan ikus daitezkeen emaitzei erreparatuta, pentsa daiteke hori erantzuteko arrazoiak jardueraren araberakoak direla. Gauzak horrela, administrazio-kudeaketaren kasuan (prestakuntzaren kasuan ez bezala), jarduera horrek dakarren lan-karga aurrera ateratzeko zailtasuna iradoki dezakete emaitzek. Aintzat hartuta lan-egoerak oso heterogeneoak direla, eta bereziki, autonomo gisa lanean aritzea eta erakunde publikoekiko harremanak izatea oso ohikoa dela, sektore artistikoak maiz kezkatzen dira horretaz.

Lantokia

Zuzeneko arteekin loturiko azken ezaugarriak **lan-mugikortasunarekin** du zerikusia. Bada, lehenengo multzoko emaitzetan ikusi da EAetik kanpoko dantza-profesionalak bizi direla EAEn eta kontrakoa ere gertatzen dela.

Jardueraren zatirik handiena, beraz, EAEn gauzatzen da. Hala ere, jarduera proportzio nabarmena ematen da Espainiako estatuan, eta neurri txikiagoan atzerrian.

34. grafikoa. Inkestatuek eremu geografiko ezberdinetan dagoen lanari buruz egindako balorazioaren batezbestekoa, 1etik (ezer ez) 5erako (asko) eskalan.



Kategoriak erkatuta, erantzunen proportzioak nahiko berdintsuak badira ere, **estatuan eta atzerrian egiten duten lanak pisu handiagoa du pertsona nagusiaren artean** gazteen artean baino. Gauza bera gertatzen da **gizonak** emakumeekin eta **bazkide-tuta dauden pertsonak** bazkide-tuta ez daudenekin alderatzen baditugu.

7. taula Inkestatuek eremu geografiko ezberdinetan dagoen lanari buruz egindako balorazioaren batezbestekoa, 1etik (ezer ez) 5erako (asko) eskalan, adin-tartea, generoa eta bazkide-tuta dauden ala ez aintzat hartuta

	EAE	Espainiako estatua	Atzerria
20 eta 30 urte bitartean	4	1,93	1,79
31 eta 40 urte bitartean	3,96	2,92	2
41 eta 50 urte bitartean	4	2,57	2,14
51 eta 65 urte bitartean	3,92	3,08	2,31
Gizona	3,8	2,96	2,32
Emakumea	4,06	2,49	1,94
Ez-binarioa	4,17	3	2
Bazkide: ez	3,82	2,12	2
Bazkide: bai	4,03	2,82	2,08

1.5 EMAITZA EKONOMIKOAK

Diru-sarreraren osaera


Diru-sarreraren osaerari dagokionez, kontuan hartu beharreko fenomeno garrantzitsuenetakoa bat **diru-sarreraren osagarritasuna da**. Sektore artistikoetan ohikoa da jardueraren zati handi bat bigarren jardueratza egitea (beste jarduera nagusi baten babespean) edo zati hori beste eremu batzuetako bigarren mailako jarduera batekin osatzea.

Inkestatuen erdiek baino gutxiagok, zehazki, % 43,9k (35. grafikoa) adierazi dute lanaldi osoan edo ia lanaldi osoan aritzen direla dantzaren arloan (hau da, eskuratzen dituzten diru-sarreraren % 91-% 100 dantzaren arloko jardueratik datozela). Inkestatuen % 30entzat, berriz, dantzatik eskuratutako


diru-sarrerak bere sarrera osoen % 45 baino gutxiago hartzen dute, eta % 26rentzat % 46 eta % 90 artean.

Lehenago ere aurreratu denez, irakaskuntza jarduera garrantzitsua da sektoreko profesionalak diru-sarrerak eskuratu ditzaten, are produkzioa/ bira/erakusketa baino garrantzitsuagoa (36. grafikoa).

35. grafikoa. Dantzatik eskuratutako diru-sarreraren pisua (%)




36. grafikoa. Diru-sarreraren kontzeptu bakoitzak hartzen duen pisua 1etik (batere ez) 5erako (handia) eskalan, eta jarduera hori egiten ez duten kasuen ehunekoa



Dantzaren arlotik eskuratutako diru-sarreraren pisua aldatu egiten da, berritoki ere, adinaren arabera (37. grafikoa); **kasu honetan, gazteenek bizi dute egoerarik okerrera**. Dantzaren arlotik eskuratutako diru-sarrerekin beren guztirako diru-sarreraren % 30 baino gutxiago eskuratzen duten pertsonen gehiengoak gazteak diren arren, nagusiagoen artean ere badago egoera horretan dagoen proportzio esanguratsu bat (% 30,8, nahiz eta adin-tarte horietako ia gainerako guztiak egoera hobean dauden). Ondorioz, eta batzuen eta besteen arteko aldeak kontuan hartuta, **diru-sarreraren osagarritasuna ere egiturazko eta zeharkako ezaugarria da**.




37. grafikoa. Dantzatik eskuratutako diru-sarreraren pisua, adin-tarteen arabera (%)



Generoari erreparatuta (38. grafikoa), **gizonen egoera, oro har hartuta, hobea da**; hau da, ez daukate diru-sarrerak uztartzeko hain behar handia. Aldiz, emakumeen eta pertsona ez-binarioen kasuan, diru-sarrera guztiak edo ia guztiak dantzaren arlotik eskuratzen dituztenak % 37,3 eta % 33,3 dira, hurrenez hurren. Gizonak eta emakumeak erkatuta, beren diru-sarreraren % 30 dantzaren sektoretik eskuratzea lortzen ez dutenen proportzioa oso antzekoa da (% 16 eta % 19,6 artean), baina handiagoa da pertsona-ez-binarioen kasuan (% 33,3).

Bazkidetuta daudenak eta ez daudenak alderatuta (39. grafikoa), berriz, **egoera apur bat hobea da bazkidetuta daudentzat**.


38. grafikoa. Dantzatik eskuratutako diru-sarreraren pisua, generoaren arabera (%)



Dantzaren arlotik eskuratutako diru-sarreraren maila


Diru-sarreraren osaerari lotuta dagoen arren (dantza jarduera nagusia den ala ez), garrantzitsua da diru-sarreraren mailari ere erreparatzea. Kontuan hartuta oso agerikoa dela diru-sarrera osagarriak eskuratu beharra, nabarmentzekoa da **diru-sarreraren maila txikia dela** (40. grafikoa). Inkestatuen % 46,4k urtean 10.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte (BEZa kenduta, hala dagokionean).

39. grafikoa. Dantzatik eskuratutako diru-sarreraren pisua, bazkidetuta dauden ala ez (%)






40. grafikoa. 2019an sektorean lan egiten zuten pertsonen diru-sarrerren maila (pandemiaren aurreko urtea hartu da erreferentziazat distortsioak saihesteko)




Bada, **proporzio hori are handiagoa da gazteen artean**(41. grafikoa): gazteen % 78,6 daude egoera horretan. Batezbestekotik oso azpitik 51 eta 65 urte bitarteko pertsonen multzoa baino ez da kokatzen, zeinetan inkestatu gehienek diru-sarrerak 20.000 eurotik gorakoak baitira.

41. grafikoa. 2019an sektorean lan egiten zuten pertsonen diru-sarrerren maila (pandemiaren aurreko urtea hartu da erreferentziazat distortsioak saihesteko), adin-tarteen arabera.



Generoari erreparatuta, gizonak emakumeak eta pertsona ez-binarioak baino egoera hobean daude (42. grafikoa). Gizonen % 32k eskuratzen dute 10.000 euro baino gutxiago; aldiz, hori da emakumeen % 51ren eta pertsona ez-binarioen % 66,7ren errealitatea.

42. grafikoa. 2019an sektorean lan egiten zuten pertsonen diru-sarrerren maila (pandemiaren aurreko urtea hartu da erreferentziazat distortsioak saihesteko), generoaren arabera




Azkenik, bazkide-tuta ez daudenen % 64,7k eskuratzen dituzte 10.000 eurotik beherako diru-sarrerak eta bazkide-tuta daudenen % 41,5k.


43. grafikoa. 2019an sektorean lan egiten zuten pertsonen diru-sarrerren maila (pandemiaren aurreko urtea hartu da erreferentziazat distortsioak saihesteko), bazkidetuta dauden ala ez (%)



44. grafikoa. Laguntzen eta dirulaguntzen pisua diru-sarreretan (%)



45. grafikoa. Kontratazio publikoaren pisua diru-sarreretan (%)



Jatorri publikoko diru-sarrerak

Sektore honek sektore kultural osoarekin partekatzen duen beste egiturazko ezaugarri bat da administrazio publikoak hartzen duen pisua. Ekonomikoki, pisu hori laguntzekin eta dirulaguntzekin dago lotuta, baina baita kontratazio publikoekin ere (ekipamenduenak edo programazioenak, adibidez, antzoki eta auditoriumak eta jaialdiak eta bestelako ekitaldiak, hurrenez hurren).

Neurri ezberdinetan bada ere, **agenteen % 72k nolabaiteko lotura ekonomikoa dute administrazio publikoarekin** (44. eta 45. grafikok).


Kontratazioek hartzen duten pisua laguntza eta dirulaguntzena baino are handiagoa da: kasuen % 47,5ean, kontratazio publikoek diru-sarrerren % 46 baino gehiago hartzen dute. Ostera, kasuen % 36,6an bakarrik hartzen dituzte dirulaguntzek guztirako diru-sarrerren % 46 baino gehiago. Edozein kasutan, azpimarratzeko modukoa da sektore publikoarekiko **mendekotasun ekonomiko** handia dagoela.

Adin-tarteei erreparatzen badiegu, agerikoa da **laguntzak eta dirulaguntzak ez direla oso garrantzitsuak 51 urtetik gorakoentzat, baina bai ostera kontratazio publikoa**. Aldi berean, **ez da hain ohikoa gazteek laguntzak jasotzea eta kontratazio publikoak lortzea**, 31 eta 50 urte bitartekoekin alderatzen baditugu.


Generoari erreparatuta, **pisu handiagoa hartzen dute biek, laguntzak eta kontratazio publikoak**, (batez ere) gizonen eta pertsona ez-binarioen kasuan emakumeen kasuan baino. Halaber, pisu handiagoa dute laguntzek eta dirulaguntzek elkarte profesionaletara **bazkidetuta daudenentzat** bazkidetuta ez daudenentzat baino.




46. grafikoa. Laguntzek eta dirulaguntzek diru-sarreretan hartzen duten pisua, adin-tartearen arabera (%)




47. grafikoa. Kontratazio publikoak diru-sarreretan hartzen duten pisua, adin-tartearen arabera (%)




50. grafikoa. Laguntzek eta dirulaguntzek diru-sarreretan hartzen duten pisua, bazkietuta dauden ala ez (%)




51. grafikoa. Kontratazio publikoak diru-sarreretan hartzen duten pisua, bazkietuta dauden ala ez (%)



48. grafikoa. Laguntzek eta dirulaguntzek diru-sarreretan hartzen duten pisua, generoaren arabera (%)



49. grafikoa. Kontratazio publikoak diru-sarreretan hartzen duten pisua, generoaren arabera (%)



COVID-19aren eragina


COVID-19ak modu ezberdinean eragin zien sektore kulturalari. Testuinguru horretan, zuzeneko arteen sektoreak murrizketa handienetako batzuei egin behar izan zien aurre, mugikortasunari eta jende-pilaketari loturiko baldintza sanitarioengatik. Nolanahi ere, sektore beraren barruan ere ezberdina izan da pandemiaren eragina, eta dantzaren arloan, adibidez, **heterogeneoa** izan da.

Bada, inkestaren % 40,3k erantzun dute COVID-19ak ez zuela inongo eraginik izan beren diru-sarreretan (52. grafikoa: % 23,2) edo eragina % 20tik beherakoa izan zela (% 17,1). Aldiz, inkestaren % 25,6k adierazi dute pandemiaren eraginez % 21 eta % 40 artean murriztu zitzaizkiela diru-sarrerak; % 32,9k, ostera, diru-sarrerak % 41 baino gehiago murriztu zitzaizkiela eta % 9,8k are % 80 baino gehiago murriztu zitzaizkiela.


Era berean, **errekuperazioa ere ezberdina izaten ari da** inkestarentzat (53. grafikoa). 2021ean, inkestaren erdientzat errekuperazioa "txikia" (% 40,2) edo "deuseza" (% 15,9) izan zen. Kontrara, % 32,9rentzat errekuperazioa "nahiko handia" izan zen eta % 11rentzat "handia".




52. grafikoa. COVID-19ak 2020ko diru-sarreretan izan zuen eragina (diru-sarrereren murrizketa-ehunekoan izan zuen eragina) (%)




53. grafikoa. COVID-19aren eraginarekiko errekonbuzio-maila, 2021eko diru-sarreretan (%)



54. grafikoa. COVID-19ak 2020ko diru-sarreretan izan zuen eragina (diru-sarrereren murrizketa-ehunekoan izan zuen eragina), adin tartearen arabera (%)




55. grafikoa. COVID-19aren eraginarekiko errekonbuzio-maila 2021eko diru-sarreretan, adin-tartearen arabera (%)




COVID-19aren eragina **larriagoa izan zen gazteentzat** (54. grafikoa), batez ere nagusienekin konparatuta (51 urtetik gorakoak). Halaber, **eragin handiena emakumeek eta pertsona ez-binarioek jasan zuten**, gizonekin alderatuta (56. grafikoa). Bazkietuta egoteak ala ez (58. grafikoa), ez zuen apenas ezberdintasunik eragin; are gehiago, errekonbuzioari dagokionez, hobeto errekonbuzatu dira bazkietuta ez daudenak (59. grafikoa).

56. grafikoa. COVID-19ak 2020ko diru-sarreretan izan zuen eragina (diru-sarrereren murrizketa-ehunekoan izan zuen eragina), generoaren arabera (%)




57. grafikoa. COVID-19aren eraginarekiko errekonbuzio-maila 2021eko diru-sarreretan, generoaren arabera (%)






58. grafikoa. COVID-19ak 2020 diru-sarreretan izan zuen eragina (diru-sarrereren murrizketa-ehunekoan izan zuen eragina), bazkide-tuta dauden ala ez (%)



59. grafikoa. COVID-19aren eraginarekiko errekonburtze-maila 2021eko diru-sarreretan, bazkide-tuta dauden ala ez (%)



Era berean, emakumeak hobeto errekonburtatu dira, nahiz eta eragin handiagoa pairatu zuten (57. grafikoa). Adinari helduta, errekonburtazioak ez dauka patroir argirik, eta are hobea izan da gazteen kasuan, eragin txikiena jasan zuten 51 urtetik gorako kasuan baino (55. grafikoa). Hala ere, errekonburtazioaren patroiri begiraturik, arazoizkoa da pentsatzea **eragin handiena pairatu zutenak errekonburtatu direla hobeto.**


1.6 ZERBITZU SEKTORIALEN BALORAZIOA ETA LEHENESPENA

Zerbitzu profesionalak baliatzea

Zerbitzu profesionalak **Dantzaguneak** ematen ditu nagusiki, eta zerbitzu horiek baliatu dituzte inkestaren % 64,6k (60. grafikoa). DantzaBiz eta Dantzalabea inkestaren % 20k baliatu dituzte.

Guztira, **agente horiek eskaintzen dituzten zerbitzu bat edo gehiago baliatzen dituzte ikerketan parte hartu duten profesionalen % 70,7k** (% 29,3k ez dute zerbitzurik baliatzen; % 50 inguruk zerbitzu bat baliatzen dute; % 6k bi; eta % 16k hirurak). Ez dago alde esanguratsurik ez generoari, ez adinari erreparatuta.

60. grafikoa. Hainbat agentek eskaintako zerbitzu profesionalak baliatzea (%)




61. grafikoa. Zerbitzuak eskuratzeko erabili diren agenteen kopurua (%)




Dantzagunean (62. grafikoa), horixe baita pertsona kopuru handienari zerbitzu ematen dion hornitzailea, gelak lagatzea da zerbitzurik baliatuena, eta erabilzaileak pozik daude jasotako zerbitzuarekin. Erabilera-ehunekorik handiena duen arren, gogobetetze-maila ertaina duen zerbitzua bertan eskaintzen diren laguntzak dira: % 17,7k baliatzen dituzte, baina erabilzaileen % 28,3 bakarrik daude pozik zerbitzuarekin. Ahokularitza, aldiz, nabarmenezkoa da, gutxien baliatzen den zerbitzuetako bat den arren, interes handia pizten duelako.



62. grafikoa. Dantzaguneak eskaintako zerbitzuen zerrenda eta balorazioa (%)




63. grafikoa. DantzaBizek eskaintako zerbitzuen zerrenda eta balorazioa (%)



DantzaBiz eta Dantzalabearen kasuan (63. eta 64. grafikoa), proportzio txikian erabili dira beren zerbitzuak, eta beraz, malgutuan handiagoarekin interpretatu behar dira emaitzak. Edonola ere, DantzaBizek eskaintzen dituen laguntzak dira gehien erabiltzen den zerbitzuetako bat, eta erabiltzaileak pozik daude. Prestakuntza espezializatua ere asko baliatzen da, baina erabat pozik ez dauden erabiltzaileen kopuru handiagoa da. Dantzalabearen kasuan, prestakuntza espezializatua eta gelen lagatzea dira zerbitzurik baliatuenak, baina erabiltzaile gehienek ez dituzte positiboki baloratzen.

Hala eta guztiz ere, DantzaBiz (63. grafikoa) eta Dantzalabearen (64. grafikoa) kasuan, bietan, azpimarratzekoa da beren zerbitzuak ezagutzen ez dituztelako inoiz erabili ez dituzten baina interesa erakutsi duten inkestakuen proportzioa (zerbitzu askoren balorazioan % 50 baino gehiago).

64. grafikoa. Dantzalabeak eskaintako zerbitzuen zerrenda eta balorazioa (%)




Elkarteek eskainitako zerbitzuekiko lehentasunak

- Administrazio-kudeaketa

Administrazio-kudeaketaren testuinguruan, inkestatuen iritziz eskaini beharreko zerbitzuei buruzko lehentasun handiena ekitatiboki banatzen da **kudeaketa ekonomiko eta fiskalaren** eta **lan- eta lege-aholkularitzaren artean**, eta antzekoak dira bata eta bestea lehenengo eta bigarren postuetan kokatu dituztenen proportzioa. Hirugarren lehentasuna laguntzen eta dirulaguntzen kudeaketa da.

65. grafikoa. Administrazio-kudeaketarekin loturiko zerbitzuen lehenespena (%)




- Jarduera artistikoa

Jarduera artistikoaren testuinguruan, hobekien baloratutako zerbitzua sorkuntza eta produkzioa babestea da; haren atzetik datoz, bigarrenik,

zirkuitu eta merkatuei buruzko informazioa (inkestatuen zati handi batentzat hori litzateke lehentasun handiena) eta atzerriko prestakuntza, hirugarrenik.

66. grafikoa. Jarduera artistikoarekin loturiko zerbitzuen lehenespena (%)




- Jarduera sektoriala

Azkenik, jarduera sektorial orokor edo korporatiboari helduta, sektorearen ordezkari profesionala eta administrazioarekiko bitartekaritza-lana da lehentasun nagusia. Prestakuntza-jarduerak eta topaketa profesionalak antolatzea ere garrantzitsua da inkestatuentzat, baina adostasuna ez da hain zabala (eta horrexegatik nahiko banatuta agertzen da 1., 2. eta 3. lehentasun gisa). Halaber, dantza sustatzeko jardura orokorrak eta jendartekoak zeharka agertzen dira 2., 3. eta, batez ere, 4. postuan. Azkenik, dantza-lanen katalogoa zabaltzea 3. eta 4. lehentasunen artean agertzen da batik bat.



67. grafikoa. Jarduera sektorialarekin loturiko zerbitzuen lehenespena (%)





2. EMAITZEN LABURPENA

Azken atal honetan emaitzak eta ateratako ondorioak laburbiltzen dira, honako hauen arabera:

- Profil demografikoa
- Prestakuntza-profila
- Profil profesionala
- Lan-profila
- Profil ekonomikoa
- Aldeak adinaren, generoaren eta bazkide-tuta egotearen edo ez egotearen arabera aztertuko dira

Profil demografikoa

EAEko dantza-sektore profesionalak Bizkaian eta Gipuzkoan ditu profesional gehienak. Estatu eta nazioarteko mugikortasuna ageriko errealitatea da. Ondorioz, EAEn estatuko eta atzerriko profesionalak aurki daitezke. Alderantzik ere gertatzen da. Dantza-profesionalek eurek adierazi dute batez ere EAEn lan egiten duten arren, kanpoan ere egiten dutela lanaren zati bat: lehenik, estatuan, eta bigarrenik, atzerrian. Gauzak horrela, mugikortasuna ohikoa da hazkunde nahiz egonkortze profesionalen.

Tarteko adinetan, hau da, 31 eta 50 urte bitartean, mugitzen dira gehien. 30 urtetik beherakoak eta 50 urtetik gorakoak gutxiago mugitzeak honako bi ondorio hauek iradokitzen ditu: batetik, prestakuntza-aldiak eta profesionalizatzeko zailtasunak mugatu dezaketela gazteen mugikortasuna; eta bestetik, adina (nagusia izatea) faktore esanguratsua dela egoera fisikoan eta horrek lanbidearen jardunean izan dezakeen eraginagatik.

Gainera, sektorea nahiko feminizatuta dago, nahiz eta gizonen ehuneko esanguratsu bat eta pertsona ez-binarioen proportzio txiki bat ere badauden.

Prestakuntza-profila

Sektore artistikoan, titulazioak ez dira beste sektore batzuetan bezain garrantzitsuak. Batetik, aipatzekoa da jarduerak berak sektorearen barruan duen nolakotasuna: irakaskuntzak praktikoak eta profesionalak dira, eta talentuak konpetentziek baino garrantzi handiagoa du (gehien estandarizatu diren itemak dira).

Bestetik, aintzat hartu behar da goi-mailako irakaskuntza artistikoak ez daudela legez erabat garatuta eta dantza-modalitate guztiak barne hartuko dituen eskaintza falta dela.



Gauzak horrela, ikusten da sektorea ia bi zati berdinetan banatuta dagoela titulazio ofiziala dutenen eta ez dutenen profesionalen artean. Titulazio ofizialik ez dutenen artean, aipatzekoa da erdiek ez daukatela dantzarekin lotutako ikasketarik. Ikasketak dituztenen artean, berriz, dantzarekin lotutako ikasketak dituzten profesionalak (AAEE, zirkua...) eta dantza-ikasketa ez-ofizialak dituztenak aurki daitezke.

Titulazioa dutenen artean, goi-mailako titulazioa da ohikoena: masterrarekin batera, titulazio ofiziala duten inkestatuen erdiak baino gehiago ordezkatzan dituzte. Oinarrizko mailaren garrantzia ia hutsala da.

Dena aintzat hartuta, esan daiteke heterogeneotasun handia dagoela profesionalak jasotako prestakuntzan, motari eta mailari dagokienez.

Dena den, hauteman da gazteenen artean askoz ere ohikoagoa dela titulazio ofizial bat edukitzea. Edonola ere, gazteak ez dira prestakuntza-maila handiena dutenak, beren adinagatik. Gauzak horrela, badirudi belaunaldi arteko eragin bat dagoela eta gaur egun gehiago egiten dela prestakuntza ofizialaren alde; horregatik, titulazio profesionalak garrantzitsuagoak dira gaur egun.

EAEko prestakuntza-eskaintzaren balorazioa tartekoa da, ez ona, ez txarra, baina balorazio negatiborako joera du. Prestakuntza-eskaintzaren balorazioa okerragoa da titulazio ofizialik ez dutenen artean.

EAEko prestakuntza-eskaintzaren inguruko iruzkinek honako hauek iradokitzen dituzte:

- _ Positiboki baloratzen da Dantzerti, baina ez da nahikoa.
- _ Beharra dago prestakuntzetan dantza-estilo gehiago sartzeko: prestakuntza ofiziala eskaini behar da bai dantza klasikoaren arloan (inkestatuen arabera, dantza klasikoa da une honetan hobekien kokatuta dagoena), bai dantza garaikidearen eta dantza tradizionalaren arloan.
- _ Ikasketa ofizialeko tituluak lortzea ahalbidetzen duten espezializazio gehiago eskaini behar dira.
- _ Prestakuntza-eskaintzak lurralde osora zabaldu behar dira, bereziki oinarrizko maila eta maila profesionala.
- _ Goi-mailako irakaskuntzetan eta etengabeko prestakuntzan sakondu behar da, ibilbide profesionalen etengabeko garapena ahalbidetze aldera.
- _ Profesionalizazioarako bideak eta bide akademikoagoak instituzionalizatu behar dira dantza-irakaskuntzen arloan.
- _ Dantzertiri nazioarteko izaera emateko interesa dago.

Interpreteez gain, sortzaile eszenikoak ere presta daitezke.

- _ Eskola pribatuak, sarrera-proba ofizialen bidez, heziketa/prestakuntza jasotzeko toki bihur daitezke.
- _ Akademia pribatuek ematen duten prestakuntza oinarrizko ikasketa gisa aitor daiteke.
- _ Dauden zentroekin prestakuntza-sare bat osatzeko potentziala dago; zentro pribatuak ugariagoak dira zentro publikoak baino.
- _ Dantzarien entrenamendurako egoitza bat falta da.

Profil profesionala

Hasteko, azpimarratu egin behar da nahiko zabaldua dagoela elkarre profesionalen artean bazkide izateko joera (hamar pertsonatik zortzi elkarre batean bazkide izateko). Halaber, aipatzekoa da inkestatu asko (% 25, gutxi gorabehera) hainbat elkartetako bazkide direla eta elkarre horietako batzuk oso arlo espezializatuei lotuta daudela. Emaita horiek eta beste batzuek iradokitzen dute elkarre profesionalen artean bazkide izateko sektorean eta sektoreko azpilaroetan integratzeko estrategia bat dela.

Profesionalen artean askotariko egoerak identifikatu diren arren, oro har, prekaritate-maila esanguratsua da. Egoerarik ohikoena nolabaiteko egonkortasuna lortzea da, zailtasunekin bada ere (inkestatuen % 36,6k egin dute arrakasta erlatiboko bidea). Hala ere, inkestatuen % 44k adierazi dute ezegonkortasun-egoeraren bat bizi dutela, dantza beste sektore batzuetako lanekin uztartu behar duelako (% 21,95) edo oraindik ere lana eta prestakuntza uztartzen dituelako, dantza ez diren beste sektore batzuetako lanarekin betiere (% 21,95). Inkestatuen % 13,4k bakarrik adierazi dute dantza-munduko lan-egonkortasunerako bidea arina izan dela. Hori litzateke, gure ikuspegitik, bide arrakastatsua.

Ibilbide profesionalen eragiten duten faktoreen artean honako hauek identifikatu dituzte:

- _ Inkestatu gehienek esanguratsutzat jotzen dituzten elementuek barne hartzen dituzte prestakuntza espezifikoa eta sorkuntza koreografikorako egonaldiak.
- _ Kontrako muturrean, gutxi zabaldua dauden arren esanguratsuenak diren elementuen artean aurki daitezke atzerrian egindako egonaldiak eta etengabeko prestakuntzarako dirulaguntzak.
- _ Tartean kokatzen dira sorkuntzarako laguntzak, norberaren konpainiak sortzea eta produkzioarako eta/edo birak/erakusketak egiteko laguntzak.



Lan-profila

Beste sektore profesional batzuetan ez bezala, baina orokorrean jarduera artistiko profesionaletan ohikoa den moduan, norberaren konturako lanak hartzen duen garrantzia azpimarratu behar da. Inkestatuen % 40,2 norberaren kontura ari dira lanean eta % 14,6k uztartu egiten dituzte besteren konturako lana eta norberaren konturakoa. Gauzak horrela, profesionalen erdiek baino gehiagok egiten dituzte norberaren konturako lanak.

Ikerketa honek ezkutuan egon litezkeen lan-harremanak hauteman ditu, baita hirugarrenen konturako kontraturik gabeko lana ere. Badirudi lehenengo egoera kasu bakanetan gertatzen dela, baina egon badagoela; aldiz, bigarrena hedatuago dagoela dirudi (besteren kontura lan egiten duten pertsonen laurdenentzat nahiko edo oso ohikoa da).

Horrez gain, ikusi da zuzeneko arteen sektoreen zeharkako ezaugarri bat elkarrean babespean egiten den besteren konturako lana dela. Gainera, oso zabalduta dago.

Adinaren araberako emaitzei erreparatuta, badirudi ohiko bidea dela hazkunde profesionalarekin batera norberaren proiektuak garatzea, hau da, autonomoen araubidean egiten diren lan-proiektuak.

Sektore artistikoen egiturazko ezaugarria den lanaren aldizkakotasuna agerian geratu da, inkestatuek batez bestean egindako hilabete kopurua 8,4 baita.

Gainera, sorkuntza-, produkzio- eta erakusketa-prozesu artistikoekin lotutako arazo horri beste hau ere gehitu behar zaio: lan egindako eta kotizatutako hilabeteak ez datoz bat. Inkestatuen herenek adierazi dute desdoitze nahiko handia edo handia dagoela lan egindako eta kotizatutako hilabeteen artean; aldiz, % 20,7k adierazi dute aldea txikia dela, eta % 22k ez dagoela alderik.

Azkenik, honako lan-eremu hauek nabarmendu dira:

1. Irakaskuntza.
2. Ikerketa-sorkuntza.
3. Administrazio-kudeaketa (azken hau garrantzi gutxikotzat jo dute askok, hirugarrenen kontura lan egiten dutelako, ziurrenik).

Azpimarratzekoa da inkestatu gehienek ustez irakaskuntza-jarduerari behar besteko denbora eskaintzen badiote ere (jarduera hori da gehiengoaren ustez "behar beste" egiten dena % 51,3k erantzun baitute hori), % 21,3k uste dute nahiko lukeen denbora baino gehiago eskaintzen diola. Beharbada, hori horrela izango da irakaskuntza garrantzitsua dela uste duten arren, normalean batez ere arrazoi instrumentalengatik aritu behar izaten dutelako irakaskuntzan, bizirauteko eta diru-sarrerak eskuratzeko, eta hori, batzuetan, sorkuntza artistikoari eskaini nahi zaion denboraren kontra joan daiteke. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da inkestatuen proportzio oso esanguratsu batek (% 58,8) esan duela denbora gehiago eskaini nahiko liokeela ikerketari-sorkuntzari.

Profil ekonomikoa

Diru-sarreraren osaerari dagokionez aintzat hartu beharreko fenomeno garrantzitsuenetako bat diru-sarreraren osagarritasuna da. Sektore artistikoetan ohikoa da jardueraren zati handi bat bigarren jardueratzat egitea (beste jarduera nagusi baten babespean) edo zati hori beste eremu batzuetako bigarren mailako jarduera batekin osatzea.

Inkestatuen erdiak baino gutxiago dedikatzen dira lanaldi osoan edo ia lanaldi osoan dantzara (eskuratzen dituzten diru-sarreraren % 91-% 100 dantzaren arloko jardueratik datoz).

Diru-sarreraren osaerari lotuta dagoen arren (dantza jarduera nagusia den ala ez), garrantzitsua da diru-sarreraren mailari ere erreparatzea. Aintzat hartuta diru-sarreraren osagarritasuna oso agerikoa den errealitate bat dela, nabarmentzekoa da diru-sarreraren maila txikia dela. Inkestatuen % 46,4k 10.000 euro baino gutxiago eskuratzen dute dantzaren sektoreko jardueratik.

Diru-sarreraren maila baxuaz eta osagarritasunaz gain, beste ezaugarri bat ere hauteman da: sektore publikoarekiko mendekotasun ekonomikoa. Mendekotasun hori laguntzetan eta dirulaguntzetan eta kontratazio publikoan ikus daiteke. Bakoitzak bere neurrian, baina inkestatutako agenteen % 72k administrazio publikoarekiko nolabaiteko harreman ekonomikoa dute.



Azkenik, ekonomiaren arloan azpimarratzekoa da, sektore kulturean, oro har, ikusi den bezala, COVID-19aren eragina askotarikoa izan dela, baita dantza-sektorearen baitan ere.

Bada, inkestatuen % 40,3k erantzun dute COVID-19ak ez zuela inongo eraginik izan beren diru-sarreretan (% 23,2) edo eragina % 20tik beherakoa izan zela (% 17,1). Aldiz, inkestatuen % 25,6k adierazi dute pandemiaren eraginez % 21 eta % 40 artean murriztu zitzaizkiela diru-sarrerak; % 32,9k, ostera, diru-sarrerak % 41 baino gehiago murriztu zitzaizkiela eta % 9,8k are % 80 baino gehiago murriztu zitzaizkiela.

Era berean, errekupeazioa ere ezberdina izaten ari da inkestatuentzat. 2021ean, inkestatuen erdiuntzat errekupeazioa "txikia" (% 40,2) edo "deuseza" (% 15,9) izan zen. Kontrara, % 32,9rentzat errekupeazioa "nahiko handia" izan zen eta % 11rentzat "handia".

Aldeak adinaren, generoaren eta bazkidetuta egotearen edo ez egotearen arabera aztertuko dira

Azterketan zehar, hiru faktore horiek lagungarriak izan dira analisiaren dimentsio ezberdinak sakontzeko.

Adinaren arabera, honako hau ikusi da:

- Gazteek joera handiagoa dute ikasketa ofizialak egiteko.
- Gutxiago bazkidetzen den dira erakunde profesionaletan.
- Gazteen zati handi batek nolabaiteko egonkortasuna lortu du dantza-munduan, zailtasunak zailtasun. Zentzu horretan, 31 eta 50 urte bitartekoak baino egoera hobean daude, baina ez 51 urtetik gorakoak baino hobeto.
- Gazteek gehiago egiten dute lan besteren kontura. Norberaren konturako proiektuen garapena hazkunde profesionalari lotuta dagoela ematen du.
- Lan egindako eta kotizatutako hilabeteen arteko desdoikuntza erlatiboki okerragoa da gazteentzat.
- 51 urtetik gorakoek apur bat gehiago egiten dute lan estatuan eta

- atzerrian, adin-tarte gazteagoetako profesionalekin alderatuta.
- Gazteek diru-sarrerak uztartzeko behar handixeagoa dute, nahiz eta 51 urtetik gorakoen artean ere presente dagoen eta multzo horretan ere garrantzitsua den.
- Inkestatuak zenbat eta nagusiagoak izan, orduan eta diru-sarrera gehiago eskuratzen dituzte dantzaren arlotik. 30 urtetik beherakoek % 79 inguruk 10.000 euro baino gutxiago eskuratzen dituzte dantzaren arlotik. Proportzio hori % 24 ingurukoa baino ez da 51 urtetik gorakoen artean.
- Hain zuzen, laguntzak eta dirulaguntzak ez dira garrantzitsuak 51 urtetik gorakoentzat, baina kontratazio publikoa bai, oso garrantzitsua da. Aldi berean, gazteen artean ez da hain ohikoa laguntzak eta kontratazio publikoak eskuratzea.
- COVID-19ak eragin handiagoa izan zuen gazteengan.

Generoaren arabera³, emaitzek honako hau iradokitzen dute:

- Emakumeak dira nagusi sektorean, nahiz eta gizonen presentzia ere nabarmena den. Pertsona ez-binarioen proportzio txiki bat ere badago.
- Titulazio ofizial gehiago dituzte emakumeek eta pertsona ez-binarioek gizonen baino.
- Gizonak emakumeak baino gehiago bazkidetzen dira elkarte profesionaletan.
- Gizonen emakumeak baino bide apur bat arinagoak eta arrakastatsuagoak izan dituzte.
- Gizonen egoera hobexeagoa da lan egindako eta kotizatutako hilabeteen arteko desdoikuntzari dagokionez.
- Gizonen emakumeak baino mugikortasun handiagoa dute, bai estatuan, bai atzerrian.
- Gizonen emakumeak baino behar gutxiago dute diru-sarrerak uztartzeko, eta beren diru-sarreraren maila handiagoa da.
- Laguntzek eta dirulaguntzek eta kontratazio publikoek pisu handiagoa dute gizonen kasuan emakumeen kasuan baino.
- COVID-19aren eragina txikiagoa izan zen gizonengan, eta errekupeazioa ere txikiagoa izan da.

3. Gogoratu behar da pertsona ez-binarioen lagina hain txikia izateak eragotzi egiten duela emaitzen interpretazio zehatza egitea.



Azkenik, inkestatuak bazkidetuta dauden ala ez zaintzat hartuta, honako hauek ikusi dira:

- Prestakuntzatik lanerako bideei dagokienez, bide horiek apur bat hobeak izan dira bazkidetuta ez daudenen kasuan.
- Besteren konturako lanaren proportzioa apur bat handiagoa da bazkidetuta ez daudenen artean.
- Lan egindako eta kotizatutako hilabeteen arteko desdoikuntza handiagoa da bazkidetuta ez daudenen artean.
- Bazkide direnak apur bat gehiago mugitzen dira estatura lanera.
- Diru-sarrerak uztartzeko beharra txikixeagoa da bazkidetuta dauden pertsonen kasuan, eta beren diru-sarreraren maila bazkidetuta ez daudenenena baino handiagoa da.
- Laguntzen eta dirulaguntzen eta kontratazio publikoen pisua handiagoa da bazkide direnen artean.
- COVID-19aren eragina nahiko antzekoa izan zen bi profiletan (nahiz eta pixka bat arinagoa izan zen bazkidetuta zeudenentzat), baina errekupeazioa apur bat hobea izan da bazkidetuta ez daudenentzat.



Eranskina

INKESTAREN EDUKIAK

Galdetegi aparteko dokumentu batean dago erantsita, gaztelaniaz eta euskaraz.

Galdetegiak 6 eduki-bloke ditu:

1	2	3	4	5	6
Demografia	Prestakuntza	Ibilbide profesionala	Lan-jarduera	Emitza ekonomikoak	Zerbitzu sektorialetarako proposamena

1. Datu demografikoak:

- Jaioterria
- Egungo bizilekua
- Jaioturtea
- Generoa

2. Prestakuntza:

- Titulazio mota: ofiziala ala ez
- Prestakuntza ofizialaren maila: oinarrizkoa, profesionala, goi-mailakoa edo masterra
- Prestakuntza ofiziala jasotzeko tokia: EAE, Espainiako estatua edo atzerria
- Eskaintzen diren beste titulu pribatu batzuen azterketa
- EAEko prestakuntza-eskaintzaren balorazioa
- Beste ohar batzuk



3. Ibilbide profesionala

- Ibilbide profesionalean eragina duten zenbait faktore:
 - Sorkuntzarako laguntzak
 - Sorkuntzarako egonaldiak
 - Produktorako eta/edo birak/erakusketak egiteko laguntzak
 - Atzerrian egindako egonaldiak
 - Katalogo edo zirkuituetan parte hartzeko hautatua izatea
 - Prestakuntza espezifikoa
 - Etengabeko prestakuntzarako laguntzak
 - Konpainia egonkorretan laguntzea
 - Sariak eta errekonozimenduak
 - Norberaren konpainia sortzea
- Lanerako trantsiziorako bideak
 - Oraindik ezegonkorra (beste lan batzuk uztartu beharra)
 - Oso ahula (prestakuntzari loturiko joan-etorriak, beste lan batzuekin uztartuta)
 - Zailtasunekin (baina nolabaiteko egonkortasunarekin)
 - Arina (egonkortasuna)
- Gelak lagatzeko eta prestakuntza, aholkularitza eta laguntzak jasotzeko honako hauek ematen dituzten zerbitzuen erabilera eta balorazioa:
 - Dantzagunea
 - DantzaBiz
 - Dantzalabea

4. Lan-jarduerari buruzko datuak

- Forma juridiko garrantzitsuenak (norberaren kontura, besteren kontura, biak)
 - Hirugarrenentzat
 - Elkarte edo kooperatibentzat / enpresentzat / sektore publikoarentzat / batean baino gehiagotan, neurri berean
 - Araubide orokorra / Artisten araubidea
 - Kontraturik gabeko lanaren maiztasuna
 - Aurretiazko kontratuaren maiztasuna (dantzariarentzat)
 - Autonomo / hainbat agente
 - Autonomo / agente bakarra
 - Epigrafea
 - Kooperatiba eta plataformei fakturatzeko maiztasuna
 - SL edo beste batzuk



- _ Lantokiaren maiztasuna: EAE, Espainiako estatua edo atzerria
- _ Hauei eskainitako dedikazioa (baja/alta) eta dedikatutako denboraren balorazioa (gustatuko litzaidakeena baino gutxiago, denbora egokia, behar baino denbora gehiago):
 - Irakaskuntza
 - Prestakuntza
 - Ikerketa/sorkuntza
 - Produkzioa/Erakusketak/Banaketa
 - Bitartekaritza-Audientziak
 - Administrazio-kudeaketa
- _ COVID-19aren eragina: 2019an lan egindako hilabeteak versus 2021ean lan egindakoak
- _ Lan egindako hilabeteen eta kotizatutako hilabeteen arteko desdoikuntza (deuseza, txikia, nahiko handia, handia)

5. Emaidza ekonomikoak

- _ Dantzak diru-sarreretako kontzeptu gisa duen pisua
- _ Irakaskuntzatik etorritako diru-sarrereren garrantzia
- _ Produktiotik/biretatik/erakusketetatik etorritako diru-sarrereren garrantzia
- _ Bestelako diru-sarrereren iturriak
- _ Agenteen tamaina: 2019ko diru-sarrereren bolumena
- _ COVID-19aren eragina: diru-sarrerak murriztea 2020an
- _ COVID-19tiko erreperazioa: diru-sarrereren erreperazioaren maila 2021ean (deuseza, txikia, nahiko handia, handia)
- _ Laguntza publikoen pisua
- _ Kontratazio publikoaren pisua

6. Elkarreentzako proposamenak

- _ Elkarre sektorialetan parte hartzea (bai / ez, baina gustatuko litzaioke / ez, ez zaio interesatzen)
 - ADDE
 - Artekale
 - Eskena
 - Gipuzkoa elk.
 - FECED
 - Beste batzuk
- _ Elkarreetan parte hartzeko gomendioak
- _ Administrazio-kudeaketarekin lotutako zerbitzuak lehenestea
 - Kudeaketa ekonomikoa eta fiskala
 - Lan- eta lege-aholkularitza
 - Laguntzen eta dirulaguntzen kudeaketa



- Jarduera artistikoarekin lotutako zerbitzuak lehenestea
 - Ikuskizunen sorkuntza eta produkzioa
 - Atzerriko prestakuntza
 - Zirkuituei eta merkatuei buruzko informazioa
- Jarduera sektorialarekin lotutako zerbitzuak lehenestea
 - Prestakuntza-jarduerak eta topaketa profesionalak antolatzea
 - Sektorearen ordezkartza profesionala eta bitartekartza
 - Dantza-lanen katalogoa zabaltzea
 - Jarduera orokorrak/jendartekoak dantza sustatzeko

